


Simon Stevin eta John Neper

Zenbaki osoen eta zatikien ondotik

Matematiken historia


Jendeak zatikiak erabiltzen ditu antzinateko Egiptoaren arotik.



Kom Ombo tenpluko hieroglifoak  
(K. a. II. mendea)

# Simon Stevin, Flandriako kontularia zen.

Brujasen bizi izan zen XVI. mendean.



Haren iritziz,

$$21 + \frac{5}{10} + \frac{3}{100} + \frac{2}{1000}$$


maneran idatzi zenbakiak ez ziren oso erabilgarriak kalkuluen egiteko.

Horregatik, idazkera sinpleago bat proposatu zuen:

$$21^{(0)} 5^{(1)} 3^{(2)} 2^{(3)}$$

<sup>(0)</sup> goi-indizeak batekoak, <sup>(1)</sup> goi-indizeak hamarrenak, <sup>(2)</sup>-k ehunenak, etab. adierazten dituzte.

XVII. mendearen hasieran, John Napier (Neper) matematikari eskoziarrak <sup>(0)</sup> goi-indizea kakotxaz ordezkatzeari proposatu zuen eta gainerako sinboloen ez erabiltzea (garai hartan puntu sinboloa erabiltzen zuten gainerakoek).





$21 + \frac{5}{10} + \frac{3}{100} + \frac{2}{1000}$  honela idatziko da beraz:

21,532

**Gogoan atxiki: batekoen zifra non dagoen jakinarazteko erabiltzen da kakotxa!**

**Zuen aldi orain:**

Idatz itzazu  $3 + \frac{7}{10} + \frac{9}{100}$  eta  $13 + \frac{2}{10} + \frac{5}{100} + \frac{8}{1000}$  zenbakiak

Simon Stevin-en moldean lehenik,  
John Neper-en moldean ondotik.